

Idurieta, Goirie, Sabalbarri, Troka



3.35

Trokan jaiotako Bizente Ordeñana Egileor eta Argiñako Juana Goikoetxea Bilbao. Bizente birritan ezkondu zan. Juana da bigarren andrea eta sei-seme alaba izan ebezan: Juan, Bizente, Josefa, Justo, Luis eta Jose, danak Trokan jaiotak. Gero errementerira etorri zirean, Mari Uriarte bizi dan etxera. Bizente 1953ean hil zan.




3.36

Ariltzeko Juana Uribarri Urkidi eta Trokako Bizente Ordeñana Goikoetxea. Bizente Trokako Bizente eta Argiñako Juanaren bigarren oinordekoa dogu. 1948-VI-19an ezkondu zirean eta ezkontza honen frutu dira Arantza eta Jesus Bizente. Erremitterire ezkondu zirean eta gero Garbera joan zirean biziten, 1967an. Bizente 1993-III-16an hil zan, 79 urteko zala.




3.37

Zeanuriko Albakoa baserriko Maria Etxezarraga Egileor eta Alzustako Justo Ibarra Ozerin. 1941 aldera ezkondu eta lau seme-alaba izan ebezan: urte bigaz hil zan mutiko bat, Begoña, Sabino eta Jabier. Azken hau hilabetekoa zala Garbeko Larreatarren etxera etorri zirean eta urte bigarrenean Juan Ugarriza eta Josefa Ordeñanari etxea erosi eta Idurietara etorri zirean. Mari 1916.ean jaio eta gaur Galdakaon bizi da. Justo 1912.ean jaio eta 1993-II-3an hil zan, 81 urteko zala.



3.38

Altamingo errotako alaba (Bernaola Uriarte) eta Baltzolako Julian Soloeta Amorrortu. Ezkondu eta Altamingo errotara etorri zirean biziten. Hiru seme-alaba izan ebezan: Basilia (Zeanurira ezkonduko dana), Mari (Goiriko Luis Soloeta Ozerinegaz ezkonduko dana) eta Ezekiel (etxean geldituko dana). Luis Soloeta eta Mari Soloetak hiru seme-alaba izango dabez, Koldo, Jon eta Mari Karmen.



3.39

Dimako Magdalena Iza Bustinza (1899ean jaio eta 1974-VI-3an, 75 urteko hil zana) eta Idurietako Franzisko Bilbao Larrinaga. Argazkia ezkondu ziranekoa da, 1921ekoa. Ezkondu eta zazpi seme-alaba izan ebezan: Pedro (1973-IV-25ean hil zana, 51 urte gaz), Klaudio, Nieves, Infamia, Teresa, Jesusa eta Magdalena. Franzisko 1981 aldera hil zan, 69 urteko zala; Magdalena 1980 aldera, 74 urte ebazala.



3.40

Usubeleko Julian Landajo Goioaga, Sebastian eta Franziskaren bosgarren oinordekoa (1900-VII-18an jaioa) eta Sabalbarriko Maria Urkiri Beistegi, Jose eta Franziskaren alaba (1907-VIII-4an jaioa). 1928-I-28an ezkondu eta sei seme-alaba izan ebezan: Julian, Maria Gregoria, Zipriano, Maria Jesus, Pilar eta Aszension.